

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 30a, osteguna ::: 4.629 zk. ::: www.kronika.net

KALDEREROAK

Kaldereroak, inauterien iragarle

Larunbatean aterako dira kaldereroak Elur Txoritik, 21:00etatik aurrera.

ELTZEAK, pertzak, paderak eta mailuak dantzan ibiliko dira beste behin ere kalderero egunez, larunbat gau honetan. Inauterien iragarleak aurtun sekula baino garaizago datoz, eta hilabete lehenagotik sartuko dira Hernaniko

kaleetan barrena. Kaldereroen konpartsa Elur Txori elkarteak antolatzen du, eta bertatik abiatuko dira larunbatean, gaueko 21:00etatik aurrera.

Kale buelta Oarson abiatuko dute, Elkano, Larramendi, Arantzazu plaza, eta Xalapar-

ta elkarteak. Han, geldialdia eta kantua. Xalapartatik, Gudarien plazatik Kardaberaz barrena Plaza Berrira, eta han beste geldialdia. Azkenik, Kale Nagusitik berriz Gudarien plazara igota han bukatuko dute.

Entsaioa eta afaria

Azkeneko entsaioa gaur egingo dute Elur Txori elkarteak, 20:00etan. Horrez gain, larunbatean afaria dago Elur Txorin, 19:30etan, eta apuntatzeko zerrenda jarri dute elkarteak (7 euro). ||



◆ ESKU PELOTA

Ojuel eta Lizeaga gaur, kiroldegian

Hernaniko pelotariak bi partiduko jokatu dute gaur.

Ojuelek eta Lizeagak Euskal Herriko txapelketako partidua dute, Eple taldeko bikotearen kontra, 20:15etatik aurrera, Hernaniko kiroldegian. Lopezek eta Esnaolak Gipuzkoako txapelketako partidua dute, Iruran, 20:00etatik aurrera, Mundaroren kontra.

Horrez gain, ostiralean ere izango dira partidukoak Soraluze, Oartzun, Alegia eta Lazkaon. ||

◆ ERREMONTA

Erremonte Gala torneo, gaur hasi eta gaur buka

Galarretan Erremonte Gala berezia jokatu da gaur.

Bertan lau bikote neurtuko dira, eta zuzenean finalerdiak eta finala jokatu dituzte. 16:00etatik aurrera. ||

◆ PRESO ETA IHESLARIAK

San Joan Konpartsa protagonista, hileko azken ostiralean

Preso eta iheslarien eskubideen aldeko ekitaldia egingo dute bihar, eta hileko azken ostiralero bezala, ekitaldi berezia prestatu dute.

Oraingo honetan San Joan Konpartsako kideak izango dira protagonista. Deialdia, 20:00etatik aurrera Gudarien plazan. ||

◆ ASTIGARRAGA

2014ko aurrekontua gaur, Plenoan

Astigarragako Udalean pleno garrantzitsua dute gaur, 2014ko aurrekontuak onartuko baitira bertan, beste hainbat punturen artean. 19:00etatik aurrera, Areto Nagusian. ||


Areto Nagusia beteta, 2013ko urtekariaren aurkezpenean

Atzoko ekitaldian azpimarratu zuten urtekariak gai tipo asko biltzen dituela, hasi momentuko gaietatik eta garai bateko gaietara; orokorretatik zehatzetara... Liburu bana eman zieten herritarrei.

URTEKARIAK beti izaten du halako tiradizo bat, eta atzo ere goraino bete zen Udaltzeko Areto Nagusia, Hernani 2013 Urtekariaren aurkezpenean. Udaleko arduradunak bertan ziren, eta Luis Intxauspe Alkateak esker hitzak izan zituen guztientzat «eskerrik asko hau posible egin duzuen guztioi, artikuluren bat idatzi duzuenoi. Eta eskerrik asko gerturatu zaretenoi, azpimarratzekoa da urtekariak urtero herrian duen harrera».

16 artikulua

Hernanik badu oinezko ibilbide sare bat, eta horri buruzkoa da lehendabiziko artikulua. Bigarrena ere eguneko gaia da, Semdinli herri kurdia eta Hernaniren arteko senidetzeari buruzkoa. Liztor beltzaren ingurukoa, krisiari buruzkoa, edo Goiz Eguzki elkartearen urteurrena dira eguneko beste gai batzuk... egunetik ateratzen dire-



Luis Intxauspe eta Txuso Gomez, atzoko aurkezpenean.

nak, arteari buruzko Velazquez eta Hernani lotzen dituen bat, edo Uztapide eta Hernani lotzen dituen... Errapia eta Koxka elkartei

buruzkoak, edo axeri dantzaren barru-barruko ikuskera ere badakarzki urtekariak, eta beste hainbat eta hainbat. Hernaniko izatea maite

dutenentzat egun seinalatua izaten da atzokoa, eta atzo ere txintxo-txintxo inguratu-tako asko izan ziren. Denei eman zitzaizen ale bana. ||

OTSUA-ENEA
Astebetetik igandera eguerditan irekita
Osiñaga auzoa
Tel. 943 55 68 94

tripontzi taberna
Sabemos castellano
PINTXOAK RAZIOAK ENTZALADEK
BOKATAK PLATER BOMBINATUAK
ZATOZ DASTATZERA!
Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

LABEAK
KAFETEGIA-OKINDEGIA
INAUGURAZIOA
Gaur, 18:00etatik 20:00etara
LATSUNBE BERRI, 37 BEHEA

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucila** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR Euria. Euria gogotik, eta ekaitza lehen orduetan gaur, kazkabar jasaren bat ere bai. Mendebala goizean, arratsean ipar ikutua- rekin. Min.5° / Max.9°

BIHAR Goizean euri zaparrada batzuk botako ditu, baina arratsaldean atertzera. Hego mendebal zakar joko du eta tenperaturak pittin bat igoko. Min.5° / Max.11°

(euskalmet)

PLENOA

Plenoak gogor salatu du abortoarene legearen erreforma

Hiru alderdik aurrez adostutako mozioa aho batez onartu zuten atzo. Horrez gain Aramburu enpresako langileek euren egoera azaldu zuten.

ESPAINIAKO Ministroen Kontseiluak proposatu berri du abortoarene legearen erreforma, kritika sorta jaso dituen. Atzo Hernaniko Plenoak gogor salatu zuen erreforma hori, eta 8 eskaera onartu zituen. Plenoak aho batez onartu zuen aurrez Bozera maileen Batzordeak onartua zeukan mozioa.

Bildu, EAJ eta PSE-EEren izenean aurkeztu zen mozioak funtsean dio, erreforma horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten duela, «edo bestela esanda, oinarriko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka...». Gaur egungo kasuistika ere aipatzen du mozioak. «Gaur egun haurdunaldia bilatu gabe (nahi izan gabe) haurdun geratzea da arrazoi nagusia haurdunaldia etetzeko. Proposamen honekin emakume horiek guztiak behartu egin nahi dira ama izatera. Malformazioak edo gaitzak identifikatutako kasuetan ere haurdunaldiarekin jarraitzea behartzen ditu emakumeak».

«Jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian...»

Plenoak adierazi zuen, presentzia landu beharko litzatekeela gehiago, baina ez dela egiten. Jakinarazi zuten, era honetako lege «murriztailek» ez dutela abortu kopurua gutxituko, eta «klandestinitatera joatera» behartuko dituela emakumeak. Funtsean, PPrene gobernuak emakumeen eskubideak zapaldu nahi dituela adierazi zuten, «jaio ez denaren eskubideak defendatzeko aitzakian».

Eskaera eta aldarrikapen hauek egin zituzten, baita ere: Espainiako Gobernuari eskatu zioten atzera egin dezala berehala; aldarrikatu zuten, haurdunaldia etetzeko baldintza nagusia izan dadila emakumearen borondatea; Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaizkien emakumeen askatasuna berma dezatela, lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala eman; aldarrikatu zuten osasun publikoak bere baitan hartu behar dituela kasu horiek; errekonozitu

zuten mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak egindako lana; eta herritarrei dei egin zieten, kontraerreforma honen aurka egiten diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Jokin Nazabal, Udal Euskaltegiko zuzendaria

Plenoan beste gai batzuk ere landu ziren. Besteak beste, hiru urtean behin aldatzen da Udal Euskaltegiko zuzendaria, eta Plenoak aho batez erabaki zuen datozen hiru urteetan Jokin Nazabal izatea.

Erregu eta galderen tarteetan, besteak beste, Aramburu enpresako langileek adierazi zioten Plenoari zortzi hilabate daramazkitela kobratu gabe, eta babesa eta laguntza behar dituztela.

Herritar batek adierazi zuen, herritarren dirua nora joaten den argiago esan beharko lukeela Udalak, eta 30 urte daramazkiela ezker abertzaleak gobernatzen «sekretismoan». Alkateak adierazi zion, eskaera zehatza egin eta erantzungo zitzaioela. II

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Morondik, 2013ko abenduan

Altza porru!!!

Hementxe jarri naizela Hernani aldera begira gaurko honetan, gose grebati errekuperatzen pixkanaka, gorputzeko ahuleziari buruko indarrarekin aurre eginez (ezagutzen nautenek buru gogorkeriarekin esango dute kar! kar! kar!). Hitz hauek idaztera animatu naiz helburu nagusi batekin, gose grebak iraun duen 32 egun hauetan jasotako elkartasuna eskertzea. Jakin modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiak gure elikagai eta indar izan zaretela egun hauetan.

Duintasunaren aldeko borroka egitera beharturik sentitu dugu gure burua eta ez genuen inolaz ere espero

jasotako babes guztia.

Jakin dezazuela egunez egun jarraitu ditugula kalean egon diren mobilizazio guztiak eta indartsu egon garela hauei esker.

Sevilla II-n ez dira gauzak aldatu eta zuzendaritzak berean dirau, baina dagoeneko erakutsi diogu zein den gure marra gorria.

Borrokak jarraitzen du, zulo hauetan eguneroko borroka baita gure duintasuna defenditzea, egun hauetan galdutako kiloak, borrokaren eta zuen elkartasunaren laguntzaz duintasunean irabazi ditugu, eta hoixe ere aiderazi nahi dizuet, borrokak merezi duela, gure eskubide eta ideiegatik borroka egitea, zer esanik ez gaur egun bizi den egoera kontuan hartuta.

Beraz, eskerrak emateare-

kin bat, borroka irrintzi bat bota nahi dizuet, argi eta ozen entzun dadin Hernaniko kaleetan.

Garai hauetan jarri irudimen eta gogoak dantzan eta borrokatu, merezi du, izan gaitezen beraien artaldeko ardi beltz.

Hemendik besarkada estu-estu bat Pakito eta Inmari, izan dadila bere askatzea lortu daitekeenaren adibide.

Bukatzeko, eskatzea libre denez eta aukera probestuz, idatzi kabr... !!! kar! kar! kar! idatzi herriko presoei, neri ere bai nahiz ta Añorgakoa izan kar! kar! kar!

Gora gu ta gutarrak, rediosss!!!

Gurutz Agirresarobe Pagola
Euskal preso politikoa



GERTAERA

Lizeaga kalea errege bidea zeneko arrastoa beste behin ere hautsi egin dute

Garai bateko errege bide zaharra esaten zitzaiona edo geroago Nazional 1 bezala ezagutzen dena Hernaniko Lizeaga kaletik pasatzen zen, Kale Nagusitik behera Zinkoeneara jaitsi eta handik Astigarragara joateko. Bide haren arrasto bat badago oraindik Hernanin, hain juxtu Portalez kanpon dago, telefono kabinaren ondoan, harrizko km puntua edo hitoa. Kare harrizko puntu horrek 250 urtetik gora ditu gutxienez, eta orain dela bi aste puskatuta azaldu zen, urtarrilaren 19an, goizaldean. Harri hori behin eta berriz konpondu behar izan du Udalak, ez baita lehendabiziko aldia puskatzen dutela. II

ERRUGBIA

Atzeratu egin dute Hernani eta AMPO Ordiziaren arteko partidua

Uholdeak direla eta, Hernaniko errugbi elkarteak eta Ordizia RE elkarteak eskatu diote errugbi federazioari larunbateko partidua atzeratzeko. Zelaia ez dago jokatzeko moduan, eta bi taldeek bat egin dute eskaera horrekin. Federazioaren erantzunaren zai daude, baina oraingoz partidua otsailaren 22an jokatuko da. Hernaniko partidua gehiago ere atzeratu dira; Hernani-Txinparta seniorren taldeak Uribealdearen kontrako partidua martxoaren 1era atzeratu du, hura ere konfirmazioaren zai badago ere. II

ZIRABA PROIEKTUA

Txirrita eskolako ikasleak eta Aranzadiko kideak ingela gorriaren arrautzen bila

Ziraba proiektuaren barruan, Txirrita eskolako ikasleak eta Aranzadiko kideak lehendabiziko bisita egin dute Epelerrekan egindako putzura. Ingela gorriaren (*Rana temporaria*) metamorfosia ikasten ari dira, eta arrautzak ikusi, bildu eta eskolara ekarri dituzte, bertan jarraipena egiteko. Aranzadiko Ion Garinen laguntza izan dute horretan. Orain jarraipena egiten ari dira arrautza horiei, eta ingela gorriari ze lekutan mugitzen den zehazten ari dira mapa batean koordinada eta guzti. Hurrengo irteera ere pentsatu dute, Alkatxuin ingurura. Informazio gehiago Ziraba proiektuaren facebook orrialdean edo Txirrita eskolako blogean (erenotzu.eskolatxikiak.org). II

IRAGARKI MERKEAK

Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldea, egongela-jangela, 100m2. Trastelekua eta garajearekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Itziar Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)